# azoka

## Erdi Aroko VII. Azoka Ordizian

Ordiziako (Gipuzkoa) alde zaharra Erdi Aroko edo antzinako azokaren agertokia bihurtuko da gaur eta bihar. Ordiziako Plazan Nagusiak eta inguruek itxura aldatuko dute, eta Erdi Aroko kutsua izango duen giroa sortuko da, joko eta kultur ekitaldiez beteta.

Eusko Jaurlaritzak bultzatzen duen Izartu egitasmoaren barruan dago azoka. Jaurlaritzarekin batera, Ordiziako Udala eta Nafarroako Etxean Egindako Janarien Elkartea ere antolaketa lanetan ariko dira.

Bost izango dira azokaren gune nagusiak: elikagaien saltokiak, artisautza saltokiak, kaleko animazioa, apainketa eta beste zenbait ekintza: dantza eta musika emanaldiak, xake txapelketa, zeramika eta pintura tailerrak eta gazteentzako jokoak, besteak beste.


LUIS JAUREGIALTZO / ARGAZKI PRESS
Erdi Aroko giroa nagusi izango da gaur, Ordiziako alde zaharrean.

**Apalategi, Unai Muñoa eta Egoitz Alkorta.** Gaur, gaueko 22:30ean, Gaztetxean.
**OIARTZUN. Herri Txapelketako sailkapen saioa: Juan Mari Lopez, Iker Goñi, Zuhaitz Lizarralde, Jon Martin, Josu Oiartzabal Xamoa III eta Miren Artetxe.** Gaur, arratsaldeko 17:30ean, Herriko Tabernan.
**OREXA. Bertso saioa: Maialen Lujanbio eta Aitor Mendiluze.** Bihar, eguerdiko 13:00etan, Herriko Plazan.
**URRUÑA. Bertso saioa: Amets Arzallus eta Sustrai Kolina.** Bihar, Ikastolan.
**ZEBERIO. Bertso afaria: Anjel Mari Peñagarikano.** Gaur.
**ZESTOA. Bertso saioa: Sebastian Lizaso eta Andoni Egaña.** Gaur, gaueko 22:30ean, Kiroldegian.

### dantza

**ERMUA. Euskal dantza jaialdia.** Bihar, goizeko 11:00etan, Cardenal Orbe plazan.
**ERRENTERIA. Ereintza dantza taldea eta Belgradeko Lira taldea.** Gaur, arratsaldeko 20:00etan, Udal Polikiroldegian. **Belgradeko Lira taldea.** Bihar, goizeko 12:30ean desfilea egingo dute, eta 13:00etan, emanaldia eskainiko dute Gamon Zumardian.

# dantza

**Ereintza dantza taldea eta Belgradeko Lira dantza taldea.** Gaur, Errenteriako Udal Kiroldegian (20:00eta).

## Euskal Herriko eta Serbiako folkloreak bilduta

Erredakzioa | **DONOSTIA**

Errenteria Dantzan jaialdiko ekitaldi nagusia ospatuko da gaur, arratsaldeko 20:00etan, Errenteriako (Gipuzkoa) Udal Kiroldegian. Serbia eta Euskal Herriko folkloreen erakustaldia izango da bertan, Ereintza Dantza Taldearen, Belgradeko Lira taldearen eta Errenteriako Dantza Eskolaren eskutik.

Ordu eta erdi inguruko ikuskizuna izango da. «Euskal Herriari dagokion atalean ohiko dantza tradizionalen hainbat moldaketa eskainiko ditugu, eta koreografia berriekin osatutako beste atal bat ere aurkeztuko dugu», esan dio EGUNKARIAri Mikel Koka Ereintza Dantza Taldeko zuzendariak. Bestalde, dantza eskolako ikasleek euskal inauterien erakustaldi txikia egingo dute.


EGUNKARIA
Ereintza dantza taldea Lira talde jugoslaviarrarekin batera ariko da gaur Errenterian.

Dantza talde jugoslaviarrak, aldiz, euren herrialdeko dantza esanguratsuenak erakutsiko dituzte, gehienak musika alai eta mugimendu azkar eta ikusgarrikoak.

Horrez gain, Errenteria Dantzan I. Mural lehiaketako lanak izango dira ikusgai. Herriko ikastetxeetako ikasleek hartu dute parte bertan, eta sari banaketa gaur egingo da.

Lira taldeak bakarkako saioa eskainiko du bihar Errenteriako Gamon Zumardian, eguerdiko 13:00etan.

### ikus-entzunezkoak

**DONOSTIA. 'Todo queda en casa' eta 'Fragmentos de Ñaque o de piojos y actores'.** Gaur, goizeko 12:00etan, Kontadores Gaztelekuan.
**ERMUA. 'Trece fantasmas'.** Gaur, gaueko 22:00etan, eta bihar, arratsaldeko 17:00etan, 19:30ean, eta gaueko 22:00etan, Ermua zineman.
**GETXO. 'La princesa por sorpresa'.** Bihar, goizeko 12:00etan, eta arratsaldeko 17:00etan eta19:00etan, Getxo Antzokian.
**PLENTZIA. 'Los Goonies'.** Gaur, arratsaldeko 16:00etan, Kultur Etxean.
**TOLOSA. 'El mago de Oz'.** Bihar, arratsaldeko 20:00etan, Bonberenean.

### bestelakoak

**BAIONA. 'De Lorca a Ferre' poesia emanaldia.** Gaur, arratsaldeko 20:30ean, La Luna Negra aretoan.
**EIBAR. Elkartruk azoka.** Gaur, goizeko 11:00etan, Untzagan.
**ELDUAIN. 'Muturreko alpinismoa' diaporama.** Gaur, gaueko 22:00etan, Urdelar biltokian.
**ELORRIO. Luisa Calcumil eta Raymundo Zambrano ipuin kontalariak.** Gaur, gaueko 22:30ean, Arriola Kutlur Aretoan. **Virginia Albira eta Teatro de la Cucañaren eskutik ipuin kontaketa.** Bihar, arratsaldeko 17:00etan, Arriola Kultur Aretoan.
**ORDIZIA. Erdi Aroko azoka.** Gaur eta bihar, goizeko 11:00etatik aurrera.
**SOPELA. .Umore jaialdia.** Gaur, gaueko 23:00etan, Frontoian.
**ZORNOTZA. Ipuin kontalariak.** Gaur, 20:00etan, Zornotza aretoan, Arnau Vilardebo eta Hector Clotet ipuin kontalarien eskutik.

### erakusketak

**BERMEO. 'Nabarra boua eta Matxitxakoko gerra'.** Maiatzaren 12a bitartean, Nestor Basterretxea aretoan.
**BILBO. 'Aberri eguna: 70 urte errebindikazio eta festa'.** Martxoaren 27tik, irailaren 1era, Sabino Arana Elkargoaren Euskal Abertzaletasunaren museoan, Manu Egilor aretoan. **'Paisaiak'.** Martxoaren 27tik zabalik, Diana de Orberen margoak, Chufo erakusketa aretoan (Iparragirre kalea, 17). **Rosa Pelayoren margoak.** Liburuaren etxean.
**DIMA. Jon Larrazabalen olioak.** Maiatzaren 15a arte ikusgai Dimeko Herriko Tabernan, Jentilzubi Kultur Elkartearen eskutik.
**DONOSTIA. Jose Luis Tolosa margolariaren olioak.** Bihartik, maiatzaren 16a bitartean, Paupa Galerietan. **Eduardo Arroyoren 'Pinturak, terrakotak eta harriak'.** Maiatzaren 30 arte, ikusgai izango dira Kutxaren Kubo aretoan. Kutxaren erakusketa aretoan. **'Kataluniako herri eta tradizio kultura' argazki erakusketa.** Maiatzaren 22a bitartean, Gipuzkoako Argazkilari Elkartean.
**DURANGO. Martina Dasnoyren lanak.** Maiatzaren 12a arte , Beittu Art Gallery aretoan. **Komiklub (1994-2001). RIP. Goian Bego.** Komiki erakusketa. Maiatzaren 26a bitartean Etxezarreta Jauregian.
**ERRENTERIA. Bost euskal artistaren pinturak salgai emakume sahararren alde.** Mikelazulo elkartean.
**GASTEIZ. Borja Arratibelen olioak eta 'collage'-ak.** Pittilingorri Sex-shopean.
**GERNIKA. 'Gernika: bortizkeriaren egiturak'.** Maitzaren 15a bitartean, Kultur Etxean. Venera Kaft eta Kurt Petzen lanak dira.

### ikastaroak

**BILBO. Tango ikastaroak.** Tangoaren oinarrizko pausuak ikastek. Uda garaian, Café Boulevard-eko lehenengo solairuan, ostiralero eta hileroko lehen larunbatetan, 23:00etatik aurrera. **Txalaparta, eskulanak, altzarien berriztapena, panderoa, alboka eta egur lanketa ikastaroak.** Onki Xin elkarteak antolatutako ikastaroetan izena emateko 94 - 410 25 71 telefonora deitu.